



# PHONE BLOCK

THE NEW MOBILE ERA  
STUDY STABLE AND STILLY

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Azken hilabete hauetan egin dugun proiektua, aplikazio batean zentratzen da. Aplikazio honek, mugikorrarekin denbora gutxiago pasatzea du helburu. Bide batez, kontzentratzeko arazoak dituzten pertsonendako oso egokia izango da. Hala ere, honek ez du esan nahi edozein pertsonak aplikazio hau ezin duenik erabili. Azken finean, gaur egun, geroz eta nabarmenagoa da gizarteak oro har egiten duen mugikorren erabilera. Horregatik, modu interesgarri batean mugikorra gutxiago erabiltzeko aukera ematea bilatzen dugu proiektu berritzaile honekin

Horretarako, erabiltzea pentsatu dugun funtzionamendua) txapelketa bezalako bat izatea izan da, non lagunekin, familiarekin edo ezagunekin lehiatu ahal duzun. Lehiatzea nahi duzun pertsonekin liga antzeko bat sortzeko aukera izango duzu aplikazioan bertan. Honen helburua ahalik eta puntu gehien lortzea izango da. Puntuak, mugikorrak itzalita ematen duen denboraren arabekoak izango dira. Hau da, geroz eta denbora gehiago izan mugikorra itzalita orduan eta puntu gehiago lortuko dira. Astero puntuak batuko dira, eta irabazle bat izango da.



Azken finean, oso ideia interesgarria iruditu zitzaigun gure gizartearen egoera dela eta. Mugikorrak gauza on asko emateaz gain, denbora asko ere kentzen digu eta askotan erabilera okerra ematen amaitzen dugu askok. Sortu dugun aplikazioari esker, arazo hau murrizteko aukera izango dugu. Gainera, txapelketa baten itxura ematen den heinean, modu entretenigarri batean egitea ahalbidetzen du. Proiektu pilotoa Oñatin hasi, hemen zabaldu eta hurrengo pausua Debagoienako herri ezberdinetara zabaltzea izango genuke helburutzat, betiere hasireako proiektuak duen arrakasta mailaren arabeko pausuak emanda.

## BALOREZKO PROPOSAMENA:

Gaur egungo arazoak direla eta, nerabeak erreztasun askorekin galtzen dute arreta. Etengabe eta momentu oro mugikorretara konektatuta daude eta batzuetan adikzio izatera hel daiteke. Horretara ez heltzeko, eta ikasketa prozesuan gehiago zentratzeko, "Phoneblock" da auzuetan dizuegun aplikazioa. Pertsona askok gailu elektronikoen ganean duten menpekotasunak ikaskearen produktibitatea erabat baldintzatzen du. Eta honek bakoitzaren emaitzetan ere eragin negatiboa izaten du. Askotan esaten da, ikasten pasatzen duzun denbora baino garrantzitsuagoa dela denbora horri atera ahal diozun etekina. Eta guk hori bilatzeko helburu duen aplikazioa merkaturatzea bilatu nahi dug. Ikasten pasatzen dugun denboran produktiboak izatea oso garrantzitsua da. Irakaskuntzak teknologiarik gauza asko eskertu behar dizkio. Baina baditu zenbait kalteordain ere, aipatu dugunez.



Aplikazio bat beste guztietatik bereiztea oso garrantzitsua da, bezeroek eskuragarri dauden aplikazio guztietatik gurea aukeratzeko. Guk sortutako aplikazio honek hainbat ezaugarri ditu beste batzuk ez dutenak edota beste batzuenak hobetzen dituenak. Ondorengo hauek dira esanguratsuenak:

**Prezioa.** Aplikazioa doanik egongo da pertsona guztien eskuetara, horrekin, aplikazioa pertsona askok deskargatu ahal izango dute, aplikazioaren erabilera nabarmen igoz, eta ezagutaraztea.

**Erraztasuna.** Gure aplikazioaren erabilera oso erraza izango da. Edozein pertsonak erabili ahal izateko diseinatuta dago. Aplikazio honen helburua pertsona batek zerbait?? zehaztugabea egiteko momentuan mugikorra alde batera uztea da, hau da, distrakziorik ez izatea, beraz, oso garrantzitsua da aplikazio barruan ahalik eta denbora gutxien egitea. Hortaz, ahalik eta denbora gutxien pasatzeko barruan, ahalik eta errazena egin behar da.

**Diseinua eta Kalitatea.** Aplikazioa erakargarria da. Aplikazioak dituen koloreak eta itxura aurretik esandako erraztasunarekin lotuta, bezeroaren begietara erakargarria egiten da. Diseinuarekin lotuta aplikazioaren kalitatea doa. Hau ere gure aplikazioa aukeratzeko arrazoietakoa bat da. Aplikazioak ez dauka zailtasun handirik, eta dituen elementu guztiak kalitatezkoak dira. Honekin esan nahi duguna da, aplikazioak itxura erakargarri eta erraza

duela, eta duen erabilera era egokian betetzen du, beraz, aplikazioak bere funtzio guztiak modu egoki eta azkar baten betetzen dituelako, aplikazioa kalitatezkoa dela esan ahal da.


**Segurtasuna.** Aplikazioak ez ditu datu pertsonal asko eskatzen, aplikazio barruan kontu bat sortzeko helbide elektronikoa bat eta pasahitz bat beharko dira soilik, guztiz pribatuak izango direnak.

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Aplikazioa hau mota askotako jendearentzat erabilgarria izan ahal da, edozein pertsonak izan ahal dituen arazoak konpontzeko bidea ematen dituelako. Horregatik, bezero konkreturik ez duela esan ahal dugu.

Alde batetik, aplikazio askotan adinaren arabera banatu eta zentratzen dira aplikazioak. Kasu honetan adinak ez du garrantzia handirik aplikazioa erabiltzeko orduan, aipatu bezala, edonork izan ahal du aplikazio honen beharra.. Bestalde, askotan ikasketaren bat burutzen ari direnek edo lanean ari direnek erabiltzeko joera handiago izango dute. Honek ez du kentzen, beste edozein pertsonak erabili ezin duenik.

Azken finean, aplikazio honek mugikorrarekin pasatzen dugun denbora murrizteko helburua du, askotan ikasteko orduak edo lanerako orduak zapuzten dizkigutenak. Gainera, kontzentratzeko arazoak dituzten pertsonentzat gomendatua dagoen aplikazio bat izango da. Gaur egun, arazo hau geroz eta gehiago agertzen da gure egunerokoan. Hau, aurrerapenak ekarri du, entretenimendu pila bat dauzkagulako bertan. Honen ondorioz, askotan gure arreta galtzen dugu horrelako edozein aplikazioetan.



Aplikazioa hau ikasketetaren bat burutzen ari den jendearentzat diseinaturik dago. Kontzentrazio arazoak edota mugikorrarekiko dependentzia duten gazte, eta ez hain gazteak izango lirateke bezero interesgarrienak. Hauek izaten direlako egoera horri buelta ematea nahi izaten duten pertsonak. Aplikazioak betetzen duen funtzioa oso sinplea da, pantaila blokeatu eta mugikorraren erabilera eragozten du. Honekin, ikasketa prozesua hobetu eta ahalik eta etekin handiena ateratzea da helburua.

Azken finean, hau ikaste orduetatik etekina ateratzeko edo denbora librea daukagunean orduak aprobetxatzeko balio duen aplikazio bat da. Horregatik, funtzio hau betetzea nahi duen pertsona ororentzat izango da baliogarria ematen dugun zerbitzua. Bezeroak ez du zertan ezaugarri jakin batzuk izan behar.

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure aplikazioa aurrera eramateko eta bidean aurki ditzazkegun arazoak konpontzeko, garrantzitsua da bazkide edota hornitzaile egokiak izatea. Gure negozio-eredua optimizatzeko bidean funtsezkoa izango da gure, taldekideen, elkarlana ahalik eta optimoa izatea. Bakoitzak, bere abilezia eta konpetentzien arabera lagunduko du proiektua hobetzen.

Taldetik kanpo, alde teknologikoan laguntza eskeini dezakeen enpresa edo hornitzaile batekin bat egitea garrantzitsua iruditzen zaigu. Beraien eskutik baliabide desberdinak eskuratzea da helburua. Adibidez, mugikorra blokeatzearen gakoa hobetzea aplikazioa ahalik eta txukunen sortzeko, izan daiteke hornitzaileak eman dezakeen laguntzetako bat.



Bazkideei dagokionez, ez dugu beharrik izango beste enpresa batekin elkartzeko. Gure kasuan, publizitatea izango da beste enpresa batetik eskuratzea beharko dugun bakarra.

Diru laguntzak, esandako bezala, Oñatiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak eskeiniko dizkigu hasiera batean, beraz, erakunde horiekin elkarte bat sortzea da egin beharreko lehena. Etorkizunera begira, Beste udal batzuekin ere kontaktatzea izango da gure helburu nagusia, Phoneblock bezero kopuru handiago batera iritsi ahal izateko.



Elkarte hauek, esandako bezala, funtsezkoak dira batez ere hiru helburu nagusietara iristeko. Honako hauek dira hiru horiek.

- **Gure negozio-eredua optimizatzea:** Elkarte bat sortzen dugun bazkide edo pertsona bakoitzaren bertsio onena bilatzea izango da. Kasu honetan, gure taldean,

bakoitzaren abilezietatik abiatuko bagina, errazago lortuko genukeen gure proiektuak arrakasta izatea.

- **Arriskuak murriztea:** Gure proiektua garatzeko orduan eduki ditzazkegun arazoak ekiditeko, elkarrekin izugarritzko laguntza eskeini dezakete.
- **Baliabideak eskuratzea:** Hornitzaileek baliabide desberdinak eskaintzea ere baliagarria da proiektua aurrera eraman ahal izateko.





## DIRU ITURRIAK

Dirua oso baliabide garrantzitsua da edozein produktu burutzeko orduan. Aplikazioaren prototipoa IOS mugikorretarako egin dugunez, hasiera batean, gaur egun sortzen diren beste aplikazio askok egiten duten bezala, Phoneblok IOS mugikorretarako eskaintzea espero dugu, eta beranduago Androiderako ere bai. Eta aplikazioa guztiz dohainik eskuratuko ahal da. Baina beste nonbaitetik lortu beharko dugu dirua proiektua aurrera eramateko eta etekina ateratzeko aplikazioari.

Kasu honetan, gure dirulaguntza denak erakunde eta udal ezberdinek eskainiko dizkigute, Eusko Jaurlaritza edo Oñatiko Udalak hurrenez hurren. Denborak aurrera egin ahalaz, eta gure proiektuak espero dugun bezalako arrakasta lortuz gero, beste erakunde batzuegandik eta udal gehiagoregandik ere dirua lortzea espero dugu, horien dirulaguntzak jasoz. Adibidez, Oñatiko udalaren laguntza jaso ondoren Arrasateko Udalarari laguntza eskatuko diogu gure aplikazioa ezagunagoa izan dezan hondoko herrietan.

Gure aplikazioa zabaltzeko, publizitate nahiko anitza eta erakargarria egingo dugu, gure proiektua ondo azaldu eta interesgarri bezala uzten duen publizitatea. Facebook, Twitter eta Instagram bezalako sare sozialetan publizitatuko gara. Marketing erakargarri bat egitea da gakoa, horrelako proiektuak amets izateari hutsi eta aplikazio famatuenetariko bat bihurtzeko, sortzen diren milaka aplikazioetatik destakatzea da gure helburua. Bezeroen arreta eskuratuz gure aplikazioak ahalik eta arrakasta handiena izan dezan.



## KANALAK

Oso garrantzitsua da sortu behar dugun aplikazioa bezeroari heltzea eta helaraztea. Horretarako, hainbat teknika eta bide existitzen dira, baina kasu honetan erabiliko ditugunak sare sozialak izango dira. Honek abantaila asko ditu teknologiaren garapena dela eta. Izan ere, ia pertsona guztiek erabiltzen dute sare sozialak beraien egunerokoan. Hauen bidez, aplikazioaren hedapen zabalagoa lortuko dugu, jende gehiagok aplikazio hau ezagutzeko helburuarekin eta honela erabiltzaile gehiago izango dugu.

Honez gain, erakargarriak izaten ere saiatuko gara, bezeroarentzako atsegina izan dadin.



Azken hori lortu ahal izateko, sare sozialetan emango dugun itxura asko zaindu behar dugu. Erakargarria eta diseinu modernoa izan behar du gure sare sozialetako profilak, gure bezero prototipoak konbentzitu ahal izateko. Geroz eta mugikor gehiagotan izan gure aplikazioa, hobe izango da, gure helburu nagusia lortzen izango ginelako. Horretarako, taldekideen artean ahalik eta diseinu onena lortuko dugu, aplikazioa zertan datzan argi uzten duena eta instalatzera gonbidatzen zaituena. Hau lortu ahal izateko, logo, kolore, eta beste hainbat baliabide erabiliko ditugu ulergarria eta adierazgarria izan dadin.

## **BEZEROAREKIKO HARREMANAK**

Bezeroarekin daukagun harremana oso garrantzitsua da, bezeroa aplikazioa erabiltzen dagoen bitartean ahalik eta seguruen eta erosoen sentitzeko. Gure kasuan, bezeroei laguntza pertsonal bat eskaintzen diegu. Phoneblock da aplikazio bat, non erabiltzaileek nahi dutenean erabiltzen dute. Beraiek behar duten denbora tarte baten mugikorra blokeatzen die aplikazioak. Beraz, gure aplikazioak bezeroari laguntza bat eskaintzen dio, eta bezeroak, nahi duenean erabili dezake. Horretaz gain, gure erabiltzaileek beraien zalantzak argitzeko, aplikazioan bertan eskura izango dute beraien arretarako zerbitzu pertsonalizatubat. Email bat izango dute eskuragarri eta 48h-an erantzunda izango dutela zalantza zihurtatzen dugu, [Phoneblockapp@gmail.com](mailto:Phoneblockapp@gmail.com) -era idatzita.

Bezeroak aplikazioan sartzeko beharko duen gauza bakarra, kontu bat sortzea eta bere helbide elektronikoa gehitzea da. Aplikazio barruan egindako kontu bat. Honekin, pertsona bakoitzak aplikazioan duen erabilera ikusi ahaliko da, sailkapen bat egiten, ezagunen artean eta mundu osoaren artean.

Beraz, honekin egitea nahi duguna da, bezeroek ahalik eta informazio gutxien sartzea ahalik eta arrisku gutxien egoteko, eta aplikazioarekin arazoren bat izaten badute, gurekin harremanean jartzeko bidea erraza eta azkarra izatea.




## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektu batek ondo funtziona dezan elementu garrantzitsuenetarikoa norberaren abilezia eta esperientziak dira. Taldean ondo elkar ulertzen dugunez, norberaren abileziak ahalik eta gehien aprobetxatu ditugu, taldekide bakoitza lanaren esparru desberdin batera bideratuz. Hau da lan egiteko erarik onena, baina oso garrantzitsua da horrelako lan baten aurrean, nahiz eta lan berdinean bakoitzak ardura desberdina izan, denok komunikazioa mantendu eta elkarri lagundutzea.

Gure proiektua burutzeko, bakoitzak bere trebeziak eta esperientziak baloratu eta mahaigaineratu genituen, zer ideiarekin jarraituko genuen jakinda. Norberak zer abilezia dituen jakitea oso garrantzitsua da, hauen arabera taldean norberak rol desberdin bat hartu duelako. Adibidez, gure taldean informatika sail baten egondako ikasle bat daukagu eta horrek egin ditu aplikazioaren garapena, prototipoa sortu eta martxan jartzearen ziurtapena. Aldez aurretik konpetentzia informatikoak dituen ikaskide bat izatea aplikazio bat sortzerako orduan oso garrantzitsua da, berak zuzenduz besteek ahal duten laguntza ematen diotenean proiektua azkar eta era egokian aurreratzen baita.



Erabili dugun baliabiderik garrantzitsuenena Just in Mind izan da. Webgune honetan gure taldekide bat arduratu da Phoneblock aplikazioaren prototipoa sortzeaz. Hainbat erreminta eskeini digu aplikazio honek, gure proiektuarekin aurrera jarraitzea ahalbidetuz.



## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Proiektu denak aurrera ateratzeko eta funtzionatzeko hainbat gauza ondo irten behar dira, eta gure proiektua ez da salbuespen bat. Jarduera horiek ondorengo hauek dira: ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sare-jarduerak.

Gure proiektua aplikazio bat denez, oso garrantzitsua da plataforma ondo eginda egotea. Bestela arazo asko edukiko ditugu behin aplikazioa plazaratu eta gero. Argi dago beti izango ditugula arazo txikiak baina horiek konpontzeko gai izan behar gara. Hori da gure proiektua arrakastatsua izateko gakoa.



Gure proiektuak funtzionatzeko ere aldagai asko izan behar ditugu kontuan. Agian leku baten beste baten baino arrakasta gehiago edukitzen du eta hori ez dago gure esku. Modak bezala, leku batzuetan beste batzuetan baino gehiago funtzionatzen dute. Baina gure helburua ez da gure proiektua moda bat izatea, baizik eta phoneblock-ek denboran luze irautea.

Eta hau guztiaz gain, proiektuak funtzionatzeko pauso garrantzitsu bat publizitatea da. Proiektua erakargarria izan behar da erabiltzaileposibleentzat. deigarria izan behar da. Ahalik eta leku gehienetan gure iragarkiak ikusi behar dira, sare sozialetan...

## **KOSTUEN EGITURA**

Gure proiektua egiterakoan, gure gastuak minimizatzen saiatu gara. Alde batetik, gure proiektua aplikazio” bat denez, guk, taldeko partaideok, egin dugu aplikazioa”. Gainera, aplikazio” hau sortzerako orduan ez dugu leku handi baten beharra izan, beraz, alde horretatik ere ez dugu gasturik izan. Beraz, aplikazioa” sortzerako momentuan ez dugu gasturik izan.



Aplikazioak” izaten dituen arazoak azkar konpontzea eta aplikazioa” beti eguneratuta izatea oso garrantzitsua da. Gure aplikazioaren” funtzio garrantzitsuenetako bat lagun arteko txapelketa da, beraz eguneratuta egotea funtsezkoa da. Aplikazioak” izango duen kostu finko bakarria aplikazioa” egoki mantentzearena da. Hau da, aplikazioak” arazo bat izango balu, aplikazioaren erabiltzaileak gurekin kontaktatuko luke eta izandako arazo hori konpontzean izandako gastuak, eta aplikazioa” beti eguneratua izateak sortzen dituen gastuak izango ziren gure proiektuaren kostu finkoak.

Horrez gain gure proiektua egoki mantentzeko beharrezkoak dira gailu teknologikoak,. Beraz, ordenagailua edo mugikorra edo beste edozein material apurtzen bada, bere konponketa beharrezkoa da. Hori izango zen proiektuaren kostu aldagarria.